**EBAZPENA, 2011ko UZTAILAREN 21ekoa, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIA KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, BEHIN BETIKO EBAZTEN DA IRAKASKUNTZA SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEAN (ISEI) TEKNIKO ADITUREN BI LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO EGIN DEN DEIALDIA.**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2011eko ekainaren 10ko Ebazpenaren bidez, IVEIn bi lanpostua zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deia egin zen.

2011eko uztailaren 11an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez behin-behineko ebazpena eman zitzaion deialdiari, eta hiru egun baliodunneko epea ireki zen erreklamazioak egiteko.

Honako hauek jarri dituzte erreklamazioak epe horren barruan:

Bittor Lasa Beitia: Ezestu egiten da zerbitzu eginkizunen onartua izateko egin duen eskaerak Herri-administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua betetzen ez duelako. Era berean ez du betetzen Abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretua, posta-zerbitzuen ematea arautzen duen Arandia onartzen duena, Posta Zerbitzu Unibertsalaren eta Posta Zerbitzuen Liberalizazioaren uztailaren 13ko 24/1998 Legean ezarritakoaren garapenean.

Horiek horrela, honako hau

**EBATZI DUT**

Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-oholetan argitaratzea deialdiaren behin betiko ebazpena, eranskinean jasotzen denaren arabera.

**ERREKURTSOAK**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak, bere 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 21a

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

Juan Manuel Aramendi Arteaga

# ERANSKINA/ANEXO

## TÉCNICO ESPECIALISTA EN TRASTORNOS GENERALES DEL DESARROLLO
## GARAPENAREN NAHASTE OROKORRETAKO TEKNIKO ADITUA

**PROPUESTA/PROPOSAMEN: DAMBORENEA ISUSI DOLORES**

## TÉCNICO ESPECIALISTA DE INVESTIGACIÓN/IKERKETARAKO TEKNIKO ADITUA

**PROPUESTA /PROPOSAMEN: ANGULO PINEDO, FJ**

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 94 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: huisgesp@ej-gv.es